

Musika emanaldi ugari izan dira asteburuan

Ostiralean kontzertua izan zen kulturetxean eta larunbatean Ttakuntronik zirkuituko emanaldiak

Musikazaleek asteburu ederra izan dute pasa berri den hau. Ostiralean, iluntzeko 8etan iruñako Sara kantautorearen emanaldia izan zen kulturetxeko kafetegian Xpression! taldea eta udaleko Gazteria Sailaren artean sinatutako hitzarmenaren barruan. Sarak bere abesti propioak eta beste zenbait taldeen bertsoak ere jo zituen. Hasieran jende gutxi hurbildu bazen ere Sara entzuteran, poliki-poliki joan zen girotzen aretoa eta jende bezetzen.

Denuntzia sozialeko abestiak kantatu zituen Sarak, emakumeenganako biolentziaren aurkakoak barne. Ahots goxoa eta abesti bixiak eskaini zituen; abesti batzuk lasaiak baziren ere beste batzuk rockeroak ziren. Bildutakoek txaloekin eskertu zioten Sarari emanaldia.

Ttakuntronik

Iaz hasitako zirkuitua, hilabete honetan ere ez zuen kalirik egin eta larunbatean Djen emanaldiez gozatzeko aukera izan zen herriko tabernetan. Jalgi kafe-antzikian gainera, musika emanaldiarekin osteguneari jarritako "The Artificial Smile Company" margo erakusketa inauguratu zen. Musika jartzan ari zen DJ Ziló baita erakusketa jarri duena.

Herrikoak ziren larunbateko Ttakuntronikeko DJ guztiak. Obelix tabernan Naken Selektor Dja izan zen Jamaican Style estiloko musika jartzan; Siglo XX tabernan DZ aritu zen Hip-Hop, Soul, Funk, Bass Power... musika motarekin eta orain gutxi zirkuitura gehitu den Abend kafe-antzikian berriz, Iñaki Brighton aritu zen R&B, Soul, Revival Mod... musikarekin. •




Goiko irudiak kulturetxeko kafetegian Sararen emanaldia, eta behean Siglo XX tabernan aritu zen DZ dj-a.



Saharako herriari elkartasuna adierazteko Maratoian herriko ordezkaria /2

GIZARTEA | 3

Pertsonen kontrako minen ondorioak ikusgai kulturetxeko erakusketan



Lasarte-Oriako sagardogintzaren bilakaera eta gainbehera historikoa /4-5



ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi kalea 3 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 361278

Bideo Lagunak

Betiko zerbitzu eta eskaintza paregabeak, leku berrian!

Denda lekuz aldatu dugu!



Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134 • e-maila: jose@bideolagunak.com

Lasterketa hutsa baino gehiago

■ Tomas Arruti eta Gorka Lasa Saharako Maratoian ariko dira, hilaren 23an

Bederatzigarren aldiz, Saharako Maratoia izango da datorren otsailaren 23an. Lasarte-Oriak ere izango du ordezkari eta aurtun: Tomas

Arruti, Usurbilen bizi den Gorka Lasa arrasatearrarekin batera, abentura honi azken ukituak ematen ari da egunotan, hilaren 20an Tinduf

aldera abiatu aurretik. Astebete igaroko dute han, eta beraz, Maratoiaz gain beste hainbat gauza ikusi eta egingo dituzte bertan.

Amaitu PORTUGAL

Beroa, hondarra, haizea, bizimodu gogorra... eta hala ere urtetik urtera jende gehiago erakartzen du Saharako Maratoiak. Horren arrazoia garbi du Tomas Arruti: "Korrika egitea da kontua, bai, baina baita Saharako herriari elkartasuna adieraztea ere". Izan ere, Saharako Maratoia ez dute Saharan bertan egiterik, noski, errefuxiatuen guneak dauden Aljeriako eskualdean baizik. Eta lasterketa aukera paregabea da 30 urte bere lurraldetik kanpo daramatzan herri honen egoera salatuzko: "Norberak (parte-hartzaileek) hurbil dituen komunikabideak aprobetxatu nahi izaten dira, propaganda egiteko".

Hasieran, txantxa hutsa

Gorka Lasak korrikalari arrotzat dauka bere burua, ohiko maratoietan ez ezik mendikoetan ere parte hartu baitu. Arrutiri, ordea, korrika egitea gustatu bai, baina behin bakarrik egin du maratoi bat: Bartzelonakoa, iaz. Hain zuzen ere, bertara lagun batekin joan zenean sortu omen zen Saharako egiteko ideia: "Pixka bat txantxa moduan hartu genuen hasieran. Bartzelonakoa nire lehenengo maratoia zen eta Saharakoak errespetu pixka bat ematen zidan...".

Baina azkenean, informazioa biltzen hasi zen Arruti, eta baita izena eman ere, bere asmoen berri ia kasualitatez jakin zuen Lasarekin batera. "Nik otsailaren 22an Valentziako Maratoia egiteko asmoa neukan aurtun. Larunbat goiz batean entrenatzen ari ginela topo egin genuen Tomasek eta biok. Saharakoak bota zidan, eta 'ni ere bai!', pentsatu nuen", dio Lasak.

"Hasieran zalantzak izan genituen, hara joateak ea zer suposatzen zuen", aitortu du Arruti. Lurzoruak eta beroak kezkatzen zituen gehienbat, baina pixkanaka argitu zituzten zalantzak. Tenperatura, esaterako, ez da horren muturreko izango, 10 eta 25 gradu artean egongo baitira. Gainera, goizean, maratoia abiatuko den orduan, "fresko" egongo omen da. Behin zalantza horiek argituta, ondo baino hobeto prestatu dute beren burua; Indartzentz-



Tomas Arruti eta Gorka Lasak ia dena prest dute honez gero Tinduf aldera abiatzeko.

ko Borja Apeztegiari ere eskatu zioten aholkua. "Hobe sobera izatea faltan baino", dio Lasak.

Markarik ez daukate buruan

Arruti hiru ordu eta erdian bukatu zuen Bartzelonako maratoia; Lasa bi ordu eta 55 minutu inguru egiten ohituta dago. Hala ere, badakite erreferentzia horiek ez zaizkiela oso baliagarriak izango inguru horietan. Lasak dioen bezala, "Ez dugu sekula korrika egin basamortuan. Ezin dut esan hiru ordu eta erditik behera egingo dudarik, ez baitakit. Gozatzeraz goaz. Kirol aldetik, erronka hor egongo da beti, baina printzipioz esperientzia bat bizitzea da kontua. Akaso beste urteren batean, baina oraingoz behintzat ez".

Izan ere, Tindufen zer nolako bizimodua aurkituko duten badakite gutxi goraberrera, eta gauzak horrela lasterketa bera ez dela hain garrantzitsua ere bai. "Oso egoera gogorrean bizi dira. Gu azken finean aste baterako joango gara, baina haiek 30 urtetik gora daramate gatazka politiko batean sartuta", dio

Arruti. "Neurri batean ez zaie ezer falta, baina oso juxtu dabilta. Hemendik zer iritsiko zaien zain egoten dira", gaineratu du Lasak.

Bertan honez gero hiruzpalau aldiz izan diren Tolosako bi lagunek, Goio Eizagirrek eta Ion Diazek, nahi adina azalpen eman dizkiete. Aurtun ere joatekoak dira, eta gainera Arruti eta

Lasak haiekin egingo dute egonaldia, lauak familia berean hartuko baitituzte.

Eta bertakoa horren gogorra bada, zergatik itzuliko dira tolosar horiek, beste hainbat lagun bezala, Tinduferra? Lasak eman du gako: "Astebeteko bizimodu horrek heldu egiten zaituela uste dut, hartxo bat geratzen zaizula hor barruan".

Astebete, geldirik egon gabe

Tomas Arruti eta Gorka Lasa bezala, beste hamarnaka euskal herritarrek hilaren 20an egingo dute martxa, Madrildik iluntzean aterako den hegaldian. Herrialde askotako parte-hartzaileekin egingo dute topo Tindufen, eta astebete igaroko dute gutzira Mendebaldeko Saharako errefuxiatuekin. Lauko taldetan banatuta, bertako familiekin egingo dute egonaldia, *haima* izeneko haien etxoletan.

Hilaren 23a izango da lasterketa eguna. Maratoia gogorregia dela uste dutenek izango dute alternatibarik egun hartan, maratoi erdia eta hamar eta bost kilometroko lasterketak ere egingo baitituzte. Eta gainontzeko egunetan ere ez dira egonean geratuko. Besteak beste, aurreko urtean Maratoiarekin bildutako diruari esker erakitako kirol eskola bat inauguratuko dute, 160 kilometro egingo dituzte Dajla kanpamentua ezagutzeko (bertan haurrentzako lasterketa prestatu dute), eta sahararren festa nazionalen ere hartuko dute parte. •

“Berriz joateko gogoia ekarriko dugu handik”

Zer eraman behar duzue ezinbestean?

Gorka Lasa. Korrika egiteko bisera, lepokoa, betaurrekoak... baina bestela ezer ez.

Eta zer ekarriko duzue handik?

Lasa. Kristoren esperientzia.

Tomas Arruti. Hori da.

Lasa. Denek esan digute bertako jendea oso jatorra dela, umila, ez dutela ezer eta hala ere dena eman nahi dituzela.... Uste dut berriz joateko gogoia ekarriko dugula handik.

Maratoia egiteko, hotzegi ala beroegi izatea nahiago?

Lasa eta Arruti. Hotzegi.

Zein da orain arte egin duzuen lasterketarik gogorrena?

Lasa. Aizkorriko Maratoia. Egin dudana gogorrena da, baina gozatu ere egin dut! Horrek harrapatu egiten du.

Arruti. Bartzelonakoa, baina egin dudana luzeena delako, ez gaizki pasatu nuelako. Egon da Behobiaren bat, non gutxiago prestatuta joateagatik Bartzelonakoan baino okerrago pasatu dudana.

Lasa. Askotan, maratoia bera baino gehiago aurreko hiru hilabeteetako entrenamenduk dira gogorak eta astunak. Eurria dela, hotza dela, haizea dela...

Egin nahiko zenuketen lasterketaren bat?

Lasa. Asko! Baina nire datorren urteko erronka Hiru Handiak egitea da. Orain dela lau urte saiatu nintzen eta ez nuen bukatu, eta arantzatko hori geratu zitzaidan. 100 kilometro dira.

Pertsonen kontrako minen ondorioak Manuel Lekuona kultur etxeko erakusketan

TXINTXARRI

Vidas minadas, 10 años después da astelehenetik aurrera Manuel Lekuona kultur etxean ikusteko aukera izango den erakusketa.

Kooperazio arloak antolatuta, gerrateei buruzko hainbat liburu idatzi dituen Gervasio Sánchez argazkilararen erakustaldiak irudietan biltzen du pertsonen kontrako minek sortzen dituzten hondamenak.


gorputzeko zatiren bat moztua dutenen tragedia irudikatzen du, Euskal Fondoak dakarren erakusketa ibiltaria honek.

Vidas minadas, 10 años después datorren otsailaren 27ra arte ikusi ahal izango da arratsalde, 18:00etatik 21:00etara.

Proiektua

Kultur etxean egongo diren irudiak 1997an aurkeztutako lehen argazki-proiektu baten jarraipena dira, pertsonalizatutako istorioen jarraipena eta liburu batean bilduak izan dira.

Bosnia, Mozambike, Kanbodia, El Salvador, Irak, Angola, Afganistan, Nikaragua edo Kolonbia bezalako herrialdeetako pertsonen kontrako minen biktimen



drama dokumentatzen du *Vidas minadasek*.

Hamar urteren ondoren prestatu den erakusketa honek biktima horietako batzuen eboluzioa erakusten du. Proiektuaren helburua da, minen arazo larria eta

horren ondoriozko biktimak ez haztea.

Inaugurazioa eta bisitak

Erakusketaren inaugurazio ofiziala astelehenean izango da, otsailak 9, 19:30en kultur etxean.



Horrez gain, Lasarte-Oriako Udalak zenbait bisita zehaztu ditu ikastetxeekin, erretiratuen elkartarekin edo Emakumeen Zentro Zibikoarekin, beste batzuen artean.

Horietan, irudiak ikusteaz gain, azalpen txiki bat jasoko

dute pertsonen kontrako minei buruz eta gaur egun munduan dagoen egoerari buruz.

Helburua da udalerriko kolektibo ezberdinak inplikatzeko kontzientiazio lan bat aurrera eramanez. •

Gau giro ederra txapelketa barne

Ostare Gazte Taldeak 14 eta 17 urte arteko gazteentzako aisia proposamena egin zuen pasa den larunbaterako, eta erantzun oso ona izan zuen. Gaueko 22:00etatik gauerdira arte berrogeitik gora gazte hurbildu ziren Zumaburuko Arantzazuko Amaren eliza azpiko lokalean. Herrian nerabeentzako gaueko aisialdirako ekintza gutxi burutzen direla eta, Ostare Gazte Taldeak bultzada bat eman nahi izan dio gazteentzako eskaintzari ekintza hauekin.

Mahai teniseko txapelketa

Abenduan eginiko saioaren harrera ona ikusirik, Ostarek esperientzia errepikatzea erabaki zuen jokoetan oinarritutako aisialdia eskaintzea eta berriro ere bideo-jokoak, karoakea, mahai-tenisa, futbolina edo mahai jokoen inguruan bildu zituzten gazteak.



Bi txanda egin behar izan zuten gazteek mahai teniseko txapelketan.

teak. Gainera gazteek beraiek inizatiba hartu eta mahai teniseko txapelketa antolatu zuten. Askok apuntatu ziren eta bi txanda egin behar izan zuten. Egia esan, larunbat

iluntzean zegoen giroarekin, hobeto egoten zen leku itxi batean katean baino.

Aurreratu zigitenez, hurrengoan agian, musika talde baten bisita izango dute. •

Kiroletako oharrak

Kirol emaitzak

Futbola

Allerru - Ostadar (Kadeteen Ohorezko Maila, kopa) . . . 2-0
Ostadar - Elgoibar (Infantil Txiki kopa) 3-4

Areto-Futbola

Beti Arin - Aldaz H.K. (Euskal Liga) 2-2

Herriko txapelketa

Mayi- Danena 3-5
Katanga- Oriakrist 3-2
Obelix- Morrison 1-2
Ainhua- Lurra XXI 2-2
Okela- Jordi 3-14
Tragoxka - Epel 2-4
Oria txiki - Izkiñ 0-3
IOB H.K. - Biyona 3-5
ISU Leihoak - Izarra 5-2
Buenetxea- Ilargi 5-0
Viña del Mar - Siglo XX . . . 3-2

XV. Pala Txapelketa

Ostadarrek jakinarazi nahi du XV. Pala Txapelketarako izena emateko epea otsailaren 13ra arte luzatuko dela. Beraz, parte hartu nahi duten bikoteek Ostadarreko bulegotik pasa behar dira izena emateko, astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 20:00etara, edo 943 360433 telefono zenbakira deituta.



Lasarte-Oria ez dago sagardoaren lurraldetik urrutiti, Hernani, Astigarraga edo Usurbilek sagardotegi gehiago dituzte gaur egun, baina Lasarte-Oriako herriak hauek besteko tradizioa du sagardo egiten. Patxi Sanz-ek Lasarte-Oriako sagardogintzari buruz idatzitako liburuan kaxkano eta Zabaleta inguruan sagardo egiten zuten 23 exberen zerrenda ageri da, eta beste hamaika aipatzen dira. Handia izan da sagardogintzaren bilakaera eta gainbehera, alde handia dago duela urte batzuetatik hona. Lehen lagun asko behar ziren sagardo egiteko eta auzolanen egiten zen. Orain motorrak erabiltzen dira sagarrak txikitzi eta estutzeko eta nahikoa dira bi lagun. Baina orduko sagardotegi gehienak desagertu dira.

Sagardogintzaren gainbehera historikoa

ten sagardo saltzeko baimena eman zitloko. Hernani bazen sagardo babesteko ordenantza bat eta azkenean Hernaniko aurretik sagarrak banan banan txikitzen ziren eskuz dolorean, egurrezko "piso" edo kirikoak Hernaniko eremuakoa bukatu erabiltz. Zenbait lagun oinutsik eta praktik belauzainaraino albatza sarzen ziren pisoi banarekin dolorean sagarrak txikitzen.

Auzolanen

Gaur egungo prentsek erraz zuzalitzen dute sagarra, baina garai batean prentsa eskuz bultzatzen zizuten. Bi lagunen artean hara eta hona erabiltz behar zen helduleku bat. Auzolanen zuzalpena, gaur egun teknologia sartu da, baina batzuetan zuzalpena teknologiaz gain, teknologia zahar erabiltzen dira. "Lasarte-Oriako sagardogintza" liburuan aipatzen diren motorrak jartzen zuten sagardo egiten amaitu eta gero, eta bertsioari sagardogintza zuten herriko sagardotegiaren.

Lehenengo aipamenak

Liburuan aipatzen denez, jada 1666ko dokumentu batzuetan ageri da sagardogile batzuen arteko auzia. Sasota Arretxeak, Franzisko Barrera, Larrekole, txakoa Joanese larza, Goiegiko Sebastian Arbiz eta Sasota Zaharrek Domingo Azasaren izenez Sebastian Altzaga Herriaren Udalekxan keatu zen, Lasarten idatzitako sagardo ego- niki. Prohibitziako korrejidoreak Donostiako persona bati Lasar-

bakitzeko mugimendua mantentzeko. Eta XIX. mendeko bukaeran makina hauek sortu aurretik sagarrak banan banan txikitzen ziren eskuz dolorean, egurrezko "piso" edo kirikoak Hernaniko eremuakoa bukatu erabiltz. Zenbait lagun oinutsik eta praktik belauzainaraino albatza sarzen ziren pisoi banarekin dolorean sagarrak txikitzen.

Auzolanen Gaur egungo prentsek erraz zuzalitzen dute sagarra, baina garai batean prentsa eskuz bultzatzen zizuten. Bi lagunen artean hara eta hona erabiltz behar zen helduleku bat. Auzolanen zuzalpena, gaur egun teknologia sartu da, baina batzuetan zuzalpena teknologiaz gain, teknologia zahar erabiltzen dira. "Lasarte-Oriako sagardogintza" liburuan aipatzen diren motorrak jartzen zuten sagardo egiten amaitu eta gero, eta bertsioari sagardogintza zuten herriko sagardotegiaren.

Aintzinako sagardogintza

Gaur egun teknologia sartu da, baina batzuetan zuzalpena teknologiaz gain, teknologia zahar erabiltzen dira. "Lasarte-Oriako sagardogintza" liburuan aipatzen diren motorrak jartzen zuten sagardo egiten amaitu eta gero, eta bertsioari sagardogintza zuten herriko sagardotegiaren.

Bukaltutako festa

Azkenengo estuialdiko muzitobarekin barrika txikia betetzeko ohitura zegoen, 100-200 litroko barrika koxkor edo barrikote hori bete eta hiru asteira edatiko

"Lasarte-Oriako sagardogintza" liburuan aipatzen denez, jada 1666 urteko dokumentu batzuetan ageri da herriko sagardogile batzuen arteko auzia.



Auzolanen teknologiaz iritsi dira sagardogintza. Gaur egun nahikoa dira bi lagun nahikoa dira bi lagun milika litro egiteko.

Lasarte-Orian lehen "etxero egiten zen sagardoa". Baserri gehienek zituzten sagardotegiak eta ia denek egiten zuten sagardoa. Batzuek etxerako, beste batzuek saltzeko.

Etxero

Lasarte-Orian lehen "etxero egiten zen sagardoa". Esaldia ez da esateagatik esana. Baserri gehienek zituzten sagardotegiak eta ia denek egiten zuten sagardoa. Batzuek etxerako, beste batzuek saltzeko.

Lasarte-Orian lehen "etxero egiten zen sagardoa". Esaldia ez da esateagatik esana. Baserri gehienek zituzten sagardotegiak eta ia denek egiten zuten sagardoa. Batzuek etxerako, beste batzuek saltzeko.



tiak zaintzeko edota sagardoa egiteko nahikoa denbora. Dena den, zenbait baserri-tan egiten da oraindik sagardoa etxerako. Eta Otegi sagardotegi-gian, milaka litro egiten dira urtero. Asko dira txakolek edatatzeko gaietan sagardoa probatzen lehen direnak. Garai batean bezala, beste batzuek etxean edateko botilikako sagardoa erosten dute. Garai batean sagardoa probatzeko ematen zuten sagardotegiak, eta gaur egun oihutara honi atari eder bat egiteko atzizkako bintura da. San Sebastianen Aste Santurra bitartean egiten da zabaletik Lasarte-Orian. Otegi sagardotegi-ga, txakolek edateko.

Otegi, azkena

1982tik dago zabalek Zabaleta auzoan. Aurretik 75.000 litro inguru sagardo egiten zuten herriko sagardotegiak. Gaur egun motorrak jartzen zuten sagardotegiak, eta ia denek egiten zuten sagardoa. Batzuek etxerako, beste batzuek saltzeko.

Jose Mari Otegi da profesio-nahik sagardogintza dibartzen herriar bakarra. Geroz bi ar-badu baserriak. Berez bi ar-duera horietatik, atarazten du bizimolua. Otegi aloratu digu-nez, badira beste laupabost baserri Lasarte-Orian sagardoa egiten dituztenak. Batzuek zenbait saldan dutea eman digu.

Benak etxean bidainak, ezagutu du sagardoa. Bere atak eta atonak ere egiten zuten eta beraz bere ustez betri egiten zuten sagardoa euren etxean. Er daki zehazki noiztik. Duela 30 bat urte berri zuten sagardotegi-eta garai honetan txakolek edatatzeko dago hilerria Zabaleta auzoan dago hilerria Zabaleta dago itxia. Astelehen gauetan bakarrik ematen dituzte.

Jon ALTUNA

DAKARA

Especialitatea hostopietan
Ogiartekoak
Erraztutako
Ertzalduak

Kale Nagusia 8 behea • Lasarte-Oria 20160

JATETXEA
Eguneko menua
asteartetik ostiralera

ETJOSSI DASTATZERA



ARREGUI

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 36 1080 • Tel/Fax: 943 372521 | LASARTE-ORIA

- Material elektrikoak
- Argiak
- Bateria eta bateriak
- Instalazio elektrikoak

SALAZARPROFESIONAL

Ile-apaindegiko eta edogintzako produktak

Zure irudia zaharkitu duzu?

Geltoki 15 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 360 241

Alkoholik gabeko ospakizuna

■ Alkoholiko Anonimoen Lasarte-Oriako taldeak bere lehen urtea ospatu du Villa Mirentxun
 ■ Kafea, pastak, Alvaro Iruin medikuaren hitzaldia eta film laburra izan ziren ospakizunean

"Alkoholikoa naiz eta ez dut edaten", edota "alkolikoa naiz eta gaur ez dut edan" esanaz aurkezten dira Alkoholiko Anonimoak AA elkarteko kideak. Izen abizenik gabe. Asteartean, Lasarte-Oriako taldea sortu zenetik lehen urtea bete dela eta, kafea, Danimarkako pasta, Tolosako zigarro eta teilekin hasi zuten Villa Mirentxuko aretoa bete zutenek ospakizun irekia. Ondoren Alvaro Iruin psikiatraren hitzaldia, AA elkarteko bi lasarte-oriarren testigantzak eta herriko taldekideen bizitzan oinarritutako dokumental baten emanaldia etorri ziren.

JON ALTUNA

Alvaro Iruin sendagile psikiatrak Lasarte-Oriako taldea zorionduz hasi zuen hitzaldia eta ondoren hausnarketarako han eta hemen jasotako hainbat informazio, iritzi, adituen ikerketa eta esperientzia plan-teatu zituen.

Komunikabideetan argitaratutako albisteak ikusiz bere ustez argi dago edateko modua aldatu egin dela: 35 bat urteko gorako helduek gradu gutxioko edariak egunero hartzetik, egun gazteek gradu askoko edariak asteburuetan hartzera. Edateko bi eredu daude beraz kalean Iruinen ustez, bigarrenaren nahiko berria azken bospasei urteotakoa. Denbora-pasa moduan, jatearekin batera, egin izan den kulturalki onartutako jendarteko jarduna, ardo baxoerdiak pintxo goxo batzuekin batera eta orain, aldiz, Iparraldeko ohitura ekarri da, hau da, noizbehinka edatea, baina modu azkarrago eta zakarragoan.

Alkoholismo arazoa gehiago lotu da lehen argazkiarekin bigarrenarekin baino, baina komunikabideetan gaur egun bigarrena arazo handiago gisa ageri dela uste du medikuak eta medioek argitaratutako zenbait kontu nabarmendu zituen: sarri, "14-15 urtekoak" direla, euren lehentasuna gurasoak ez enteratzea dela, 16-18 urte arteko gaztetxoaren hirutik bik aitortzen duela "alkohola erruz hartzen duela larunbatero", eta gainera askotan alkohola beste produktu batzuekin nahasten dutela lehen ez bezala. Anbulantziek 600 gazte atentidu zituzten iaz alkohol gehiegi hartzeagatik.

Alvaro Iruinen ondorioa

horixe da: edan egiten da, beste era batera edaten da, modu arrisksuagoan edaten da, baina asko aztertu arren ezin da argi esan zergatik edaten den.

Hausnarketarako gaiak

Adituen zenbait azterketa eta ondorio aipatu zuten, hausnarketarako:

- Edatea adinaren arabera: oro har nerabegaroen hasi, 25 eta 40 urte artean menpekotasunaren lehen sintomak nabaritu, 45-55 artean uzteko ahaleginak, hasieran emaitza handirik gabe, baina gerora bi herenek hein handi batean utzi egiten du eta bosten batek edan gabe eusten dio.

- Edatearen ondorio, gaitz edo desorekak: intoxikazio larriak, kontsumo kaltegarria, menpekotasun eta abstinentzia sindromeak,... eta, momentuan hain kaltegarria izan ez arren, egunero edatea. Alkoholismoa ote? galdetu zuten. Iruinen iritziz, batzuen ustez kaltegarria bat izango da eta beste batzuentzat bestea.

- Hasiera eta gurasoen jokabidea: Aste honetan prentsan "nerabegaroen hondamendia" izenburuarekin argitaratutako artikulua arabera, hasiera erritu moduan izaten da eta 10etik 8k aitortzen du etxe-koek edaten dutela. Beraz, idatzian nerabeek edatea arazotzat hartzen da eta euren etxeetan edatearekin lotu: "Txikitatik ikusten dute, familiaren jai eta ospakizunei lotutako ohitura



Alvaro Iruin sendagileak alkoholaren kontsumoaren inguruko albisteak eta adituen ikerketak plazaratu zituen.

arrunt gisa". Prentsan ohikoa da errua gurasoei leporatzea.

Autore batzuk diote probatzeagatik hasten direla gazteak edaten. Alvaro Iruinek ez du ulertzen hala ere behin probatu eta gero zergatik esperimentatzen duten behin eta berriro...

Ikerlari kanadiar batzuek zera proposatu dute etorkizunari begira, kontsumo arrisksua gora doanez eta alkohola oso erraz lortu daitekeenez: zerga eta edarien prezioa altxatzea eta salmenta toki zein ordutegien kontrola. Hala ere, Iruinen ustez Lege Lehorrak ez zituen nahi ziren emaitzak eman eta ez lituzke gaur emango.

Bere ustez arazoa ez da alkoholik den, edo gurasoek, anaiek ala lagunek edaten duten. "Alkohola edatera eramango gaituzten faktore asko daude". Hori askotan gertatzen omen da kontsultan. Segituan hasten dira honegatik edo haregatik edaten dutela azal-

tzen, baina ez da gauza bakar bategatik gertatzen, faktore askoren nahasketa da.

Iruinen iritziz, faktore psikologiko eta biologiko asko daude ikertzeko, baina soziologikoki zabaltzen den mezuak badiu garrantzia: desberdin kontsumitzen da egun, luzera begira ezin jakin bat ala bestea den kaltegarriago, baina momentuan arrisksuagoa da larrialdi gehiago eragiten duelako, baina benetan ez dakigu zergatik edaten den, zaila da azaltzeko.

Astean birritan

Ondoren herriko taldeko bi partaidek euren bizipenak kontatu zituzten eta herriko esperientziaren oinarritutako filma eman zen bukatzeko.

AAko kideak astearte eta ostegunetan elkartzten dira, 20:00etan, eta interesa duen edozeinentzat hileko lehen asteartean bilera irekiak egiten dituzte ordu berean.

Aurreko asteartekoa berezia izan zen, lehen urtea betetzen zutelako eta Villa Mirentxuko aretoa bete egin zen urteurreneko ekitaldian. Ikusleen artean Lasarte-Oriako AA taldeko kideak, hauen senitarteko

eta lagunak, eta Udaleko ordezkari gisa Lourdes Acevedo zinegotzia. Berak azaldu zigan duela urtebete nola sortu zen taldea. "Ez nuen ulertzen nola Lasarten ez zegoen talderik. Alkoholarekin arazoa zutenek eta senitartekoek Hernanira joan beharra izatea. Beraz, AAko kideekin harremanetan jarri nintzan, taldea sortu zen eta Gipuzkoako bulegoa ere hemen jarri da. Gaur jakin dut, senitartekoek ere arazoak dituztenei laguntza emateko elkarte bat egiteko asmoa dutela. Nik beti pentsatu dut Villa Mirentxuk edozertarako zabalik egon behar duela, eta are hobeto arazoak dituztenei lagundu eta irabaziei begiratu gabe lan egiten duten taldeak badira".

Edatea kaltegarri omen da, orain lehen baino arrisku gehiago omen dago, gradu gehiagoko alkohola, noizbehinka eta modu azkarrean edaten delako, baina edan egiten du jendeak. Hitzalditik atera orduko ziurtatu ahal izan genuen. Villa Mirentxuko trinketaren ondoan udaltzainek bi gaztetxo paretaren aurka zeuzkaten. Ondoan Vodka botila bat eta euren motxilak. •

“ Orain noizbehinka baina gradu gehiagoko alkohola, azkarrago edaten da eta larrialdi gehiago dira.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
 Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
 KULTURA SAILA


Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

ZILÖ, artista lasartearraren "The Artificial Smile Company" margo erakusketa. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar.



Erakusketa

VIDAS MINADAS, 10 AÑOS DESPUES, Gervasio Sanchezen argazki erakusketa. Asteleheneretik ostiralera irekia. Kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Ostirala, 13

Jam sesioa

STAY BLUES taldea izango da gonbidatu berezia (Blues) hileroko jam sesioan. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean



Tormesko Lazarori buruzko euskarazko antzerkia haurrentzat

TORMESEKO LAZARO TXIKIA haurrentzako antzerkia eskainiko du Malas Pulgas antzerki taldeak 5 urtetik gorako haurrentzat. Antzerki talde honek haurrentzako ipuin klasikoak kontatzen ditu. Haurrak Tormesko itsumutila obrarekin lehenengoz harremanetan jartzea da lan honen asmoa, ondoren liburua gogotsu irakur dezaten.

LARUNBATEAN, HILAREN 14AN
KULTURETXEAN, 18:00ETAN
SARRERA: 3,15 EURO, EUSKARAZ

Igandea, 15

Zinea

LEPEL haurrentzako filma. Sarrera: 3, 15 euro. Kulturetxean, 17:00etan, EUSKARAZ



Osteguna, 19

Kontzertua

MUSIKA ESKOLAKO ikasleek kontzertu bufoa eskainiko dute. Kulturetxean, 19:00etan.



Zinea

LOS LIMONEROS filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera: 4,15 euro. Kulturetxean, 22:00etan.



Ostirala, 20

Kontzertua

MUSIKENeko flauta taldeak eskainiko du kontzertua Danok Kide elkarteak antolatutako IV. Topaketa Musikalen barruan. Brigitarren komentua, 19:30ean.

Kontzertua

ANA VALENTINA TRIOAREN kontzertua Udaleko Gazteria Sailak eta Xpressionk zirkuituak antolatuta. Kulturetxeko kafe-tegian, 20:00ean.



Ostirala, 27

Kontzertua

JOSE LUNA ETA ARENA FINAREN kontzertua Andaluziaren eguneko ospakizunaren barruan. Sarrera: 4 euro. Kulturetxean, 19:30ean.

Liburutegiko ordutegia



Asteleheneretik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Hauteskundeei buruzko batzara

Ezker abertzaleak hauteskundeen gora behereei buruz herri batzarran parte hartzeko gonbidapena luzatzen die lagun guztiei. Hitzordua asteartean, hilaren 10ean izango da iluntzeko 19:30ean Xirimiri elkartearen.



Mus Txapelketa Lasartearran

Lasartearra Elkarteak jakinarazi nahi du irekita dagoela XXXII. Mus Txapelketan izena emateko epea. Interesa dute-

nek elkartetik pasa daitezke otsailaren 22a bitartean.

Euskal Inauterien entsaioak

Euskal Inauterien konpartsa antolatzaileak jakin arazi nahi dute entsaioak hasi direla. Hauek Landaberri BHI egoitzan (REM ohia) egingo dira astearte eta ostegunetan 20:00etatik 21:00etara. Parte hartzeko entsaio egun batean agertzea besterik ez duzue, animatu!!

Marrazketa eta pintura eskolak

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak jakinarazi nahi du marrazketa eta pintura eskolatan lekua badagoela. Izena emateko, asteazkenetan eta ostiraletan 18:00etatik 19:00etara Manuel Lekuona kulturetxeko bigarren solairutik pasa behar duzue.

Zirkoa inauterietan

Ttakunek deialdia egin nahi die herritarrei Zirko Mundialean parte hartzeko. Izena emateko azken eguna otsailaren 11a izango da eta Ttakunetik pasa behar dute edo deitu 943 371448. Parte hartu nahi dezutenoi laguntza eskainiko dizu elkarteak: ideak garatzeko, jantzien ereduak prestatzeko, materiala lortzeko... Bide batez herritarrei beraien balkoi eta leihoak dekoratzeko eskaera egin nahi die herria girotzeko. Nahikoa da koloretako zapi batzuke edo puxikak ipintzea, animatu!

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe



Korrika 16ko bilera

Otsailak 13, ostirala, Korrikako bilera izango da. Aurtengoa korrikaren hamaseigarren edizioa izango da, eta prestaketan parte hartzeko bilera etortzera gonbidatzen zaituztegu. Zuen ideiak, gogoak... bertan denon artean aurrera ateratzeko. Arratsaldeko 3:30ean Muntteri AEK euskaltegien ongongo gara. Anima zaitzete!

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekariaz (Geltoki kalea 4).

‘Hain epe laburrean sentitu duguna azaltzea zaila da benetan’

Iñigo Manchado musikari lasarteoriatarra dugu eta batzuei ezaguna egingo zaie. Izan ere, azken hilabetean buru belarri egon da

Cuatro kateko lehiaketa batean partehartzen, *La batalla de los coros*. Donostiako edo Mikel Erentxuren abesbatzako kide izandako

lasarteoriatarrekin egon gara solasean. Elkarrizketa osoa irakurri nahiez gero, gure web orrialdean sartzea besterik ez duzue.

Nerea EIZAGIRRE

Nola jakin zenuen telebista programari buruz?

Niri Irungo Tunk aretotik deitu zidaten, Sergiok deitu zidan, nire ahotsa gustatzen zaio eta emaila erakutsi zidan. Ez zidan zehaztasun askorik eman. Proiektuan parte hartu behar nuela esan zidan eta ongintzako helburua zela. Ez zela OT antzeko programa, ez da *reality* bat, talentu berriak aurkitzeko programa da.

Eta programakoekin harremanetan jarri nintzen, ekoizleekin hitz egitean ere gauza bera esan zidaten, programa musikala zela.

Eta probak nolakoak izan ziren?

Oso zailak izan ziren. Ez zaude horretara ohitua. Telebista edo antzerkia egiten duen pertsona bat hautaketak egitera ohitzen da, baina bat-batean mikrofonoz betea dagoen gela batera sartu eta jende pila zuri begira egotea, programako zuzendaria, ekoizleak, etab. Ezagutzen ez dituzun pertsonak azken finean.

Hautaketa selektiboa izan zen gainera, 100 pertsona ginen soilik. *Cuatro*k produktu musika la egin nahi zuen, arrakasta izango zuen zerbait, musikaren munduari buruz dakiten pertsonekin edo antzerkia egin duten pertsonekin eta 100 bat pertsona joan ginen. Eta horietatik 40 aukeratu zituzten.

Bigarren hautaketan, Mikel Erentxun zegoen eta hark hautaketan parte hartu zuen bere iritzia porpioiarekin. Eta azkenean 20ek osatu genuen abesbatza. Beraz, zerbait berezia zen.

Zer sentitu zenuen Mikel Erentxuren abesbatzako kide

izango zinela entzutean?

Ezin nuen sinetsi eta hodei batean egongo banintz bezala izan zen. Bigarren programara arte ez nintzen ohartu benetan zertan nengoen sartua. Orduan, *Let it be* abestera atera baino lehen, neuri buruari esan nion, non sartu naiz! Ze hori ez zen Teledonosti, Espainia osoak ikusiko zuten nire aktuazioa.

Nork aukeratzeko zituen abestiak?

Ekipo teknikoak eta Mikel Erentxun aukeratzeko zituzten abestiak eta emanaldi bakoitzeko abestiak zeintzuk ziren esaten ziguten.

Eta nola prestatzen zenituzten?

Entseguak eta grabaketa orduak oso gogorrak izan dira. Esate baterako, azkeneko egunean, Donostiatik 14:00etan atera, Madrilera 20:30ak edo 21:00ak aldera iritsi estudiora eta goizeko 6:00ak arte gauzak grabatzen egon ginen. Gero lotara joan, 12:00etan esnatu eta koreografiak ikasten hasi. La aste guztietan horrela izan da.

Madrilen platoon ensaiatzen genuen askotan, hotelean ere gelak uzten zizkiguten koreografiak ikasi edo bakarlariren zatiak prestatzeko.

Honetaz gain, azken orduko aldaketak daude. Esate baterako, nire kasuan, *Let it be* abestu baino ordu erdi lehenago, bakarlariren doinueta aldaketak egin behar izan ziren Moi, Moisesek eta biok gauza bera abestea ekiditeko eta doinua aberatsago egiteko. Isaak Ordoñez programaren zuzendariaren eta Mikelen laguntzaz aldaketak egin eta oso polita geratu zela uste dut.

Mikel Erentxunekin harremana nolakoak izan da?

Nik Mikel deitzen diot. Lehen Mikel Erentxun edo abizenez

bakarrik aipatzen nuen. Gurekin ez da artista izan, pertsona izan da. Ez nuen espero.

Gainera, hark esperientzia berri hau bizi nahi zuen, nahiz eta ez den telebistan agertzekoa. Lehenengo galan lekuz kanpo zirudien. Baina Mikel oso lotsatia da eta den bezala agertu da Estatu osoaren aurrean, bere txano, kamiseta, etab. erakutsiz. Eta jendea gustatu zaio.

Eta abesbatza kideen artekoa?

Oso ona izan da. 20 pertsona ginen, bakoitza leku batekoa eta normala da arazoak sortzea. Beti gertatzen da zerbait, baina bederatzia bat emango nioke taldeari.

Beste abesbatzako kideekin ere harremana primerako izan zen. Hizkuntza bera partekatzen genuen, bertan ginen 100 pertsonak musikarekin erotuta ginen eta normalean zail da hori aurkitzen. Nire ustez, orain berriro ere esperientzia bera

biziko genuke.

Eta, gainera, oso zaila da hain epe laburrean sentitu duguna azaltzea. Lehen realit-
yeta jendea negarrez ikus-
tea deigarri egiten zitzaidan,
baina orain
badakit,
egia

dela. Izan ere, gerta daiteke, 20 pertsonak hilabete osoan ia 24 ordu batera igarotzen badituzte. Eta maitasun berezia hartzen diozu jendea, zuk duzun musikarenganako sentimen bera dutelako.

Irabazitako saria Donostiako Caritas elkarteari emango diozue, noiz izango da hori?

Ez dakigu ezer. Pentsatzen dut denak batu eta nola egin hitz egingo dugula.

Azken egunetan batetik bestera zabiltzate, Donostiako udalean ere egon zarete...

Bai. Odonek harrera egin eta eskerrak eman zizkigun Donostiaren izenean parte hartzeagatik. Azken finean, irudia da, 2016ko Hiri Kulturalera aurkezten denez. Oso garrantzitsua da hiriarrentzat zerbait irabazi izana. •



- Larunbata eta jai eguerditan irekita
- Asteartetik larunbatera gauero irekita

OTEGI

SAGARDOTEGIA

SOLLAENEA BASERRIA



Txotx garaia hasita!

Zabaleta auzoa • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 365029